


- 1) Maratoi batean, parte hartzen dutenen artean, %60 gizonezkoak dira. Horien artean %70-ak 30 urte baino gazteagoak dira eta parte hartzen duten emakumeen artean %20-ek 30 urte baino gehiago dituzte.
- Maratoian parte hartu duen pertsona bat zoriz aukeratuta, zein da 30 urte baino gazteagoa izateko probabilitatea?
 - Baldin badakigu aukeratutako pertsona 30 urte baino gazteagoa dela, zein da emakume batek izateko probabilitatea?
- 2) Institutu batean, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika ikasgaia 2 irakasle taldetan ematen da, 2 irakasle desberdinekin A, eta B. Igarotako esperientziaz baliatuz ikusi da A irakaslearekin aipatutako ikasgaia gaintzeko probabilitatea 0,75koa dela eta B irakaslearekin 0,6koa. Taldeen banaketa irakaskuntza buruzagitzan egiten da eta taldea aldatzea ez da baimentzen. Jakina da gainera A taldean izateko probabilitatea 0,6koa dela eta B taldean 0,4koa.
- Zein izango da ikasgaia gaintzeko probabilitatea?
 - Ikasturtean amaieran aukeratutako irakasleak ikasgaia gaintu duela baieztatzen bada, zein da A taldean izateko probabilitatea?
- 3) $P(A) = 0,6$, $P(B) = 0,3$ eta $P(A/\bar{B}) = 0,8$ direla jakinik
- Kalkulatu $P(\bar{A} \cup \bar{B})$, $P(A \cap B)$
 - Askeak dira \bar{A} eta B gertaerak? Erantzuna arrazoitu
- 4) Kalkulatu $f(x) = -x^2 + x + 20$ eta $g(x) = -x^3 + 6x^2 - 9x + 20$ funtzioek mugaturiko planoko eskualdearen azalera. Grafikoki adierazi (behar dena aztertuz).



- 1.- Pertsona batek, lanerako bidean, elkarrekiko independenteak diren bi semaforo zeharkatu behar ditu. Semaforoak bi aukera ditu, berde kolorea, pertsonak pasatzeko eta horia eta gorria koloreak pertsonak ez pasatzeko. Semaforo bakoitza berde egoteko probabilitateak 0,25 eta 0,375 dira hurrenez hurren. Demagun pertsona horrek berde dagoenean bakarrik pasatzen duela semaforoa.
- Zein izango da semafororen batean itxaroteko probabilitatea?
 - Zein da bigarren semaforoa berde badago, lehenengoa berde ez egoteko probabilitatea?
- 2.- Ikasle batek A eta B unibertsitateetan sartzeko eskaera egin du. Bere ustez B unibertsitatean onartuta izateko probabilitatea 0,5 da eta A-n onartua izateko 0,3. Horrez gain, bietan onartuta izateko probabilitatea 0,2 dela uste du.
- Zein da bietakoren batean onartuta izateko probabilitatea?
 - Egun jakin batean A unibertsitatean onartuta izan deneko jakinarazpena jaso du. Zein da B unibertsitatean onartuta izateko probabilitatea?
- 3.- $P(A) = 0,7$, $P(\bar{B}) = 0,4$ eta $P(\overline{A \cup B}) = 0,2$ betetzen dela jakinik.
- Kalkulatu $P(A \cup \bar{B})$, $P(\bar{A} \cap B)$.
 - Aztertu \bar{B} eta A gertaerak independentek diren ala ez. Erantzuna arrazoitu.
- 4.- Aurkitu $f(x) = x^3 - 3x + 2$ funtzioak, $g(x) = 4$ funtzioak eta OX ardatzak sortzen duten eremuen azalera. Grafikoki adierazi (behar dena aztertuz).

